

## Abenduak 1a: HIESaren aurkako Munduko Eguna

**2016an, Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIB) eragindako 27 infekzio berri egon ziren 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean**




**HIESaren aurkako Munduko Eguna** dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak Eusko Jaurlaritzako HIESa eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planak GIB infekzio berriei buruz emandako datuak aurkezten ditu.

Datuon arabera, 2016an, Euskadin, 158 GIB infekzio berri egon ziren. Horietatik, 27 infekzio berri 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean eman ziren, hau da, guztien % 17a. Infekzioaren transmisio bide nagusia harreman sexualak izan zire (25 kasu).

GIB infekzio berrien bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu zenbaki absolutuetan 2016an 2000tik jasotako zenbaki baxuena lortu dela.

Azkenik, argi dago fenomeno honek gizonen artean emakumezkoen artean baino presentzia handiagoa duela. Izan ere, 2016an 27 GIB infekzio berri agertu baziren, 21 gizonen artean gertatu ziren, guztien % 78 hain zuzen ere.

GIB infekzio berriak 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean, sexuaren arabera (zenbaki absolutuak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Planaren datuak oinarri hartuta

GIB infekzio berrien tasa, gazteen artean, 1,0ekoa da, adin-talde bereko 10.000 laguneko. Tasa hori mutilen artean 1,9koa da; nesken artean, aldiz, 0,5ekoa.

Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan osasunari eskaintzen zaion atalean, GIB infekzio berriei dagozkien datuak aurki daitezke.